



## UDALBILTZA

### KONTSEILU NAGUSIA

## UDALBILTZAKO PARTZUERGOAREN EZ-OHIKO KONTSEILU NAGUSIA 2023ko EKAINAREN 28an EGINDAKO BILERAREN AKTA

### 0. LABURPENA

- 1 Aurreko Kontseilu Nagusiaren aktaren onarpena.
- 2 2022ko Udalbiltza Partzuergoaren aurrekontuaren kitapenaren onarpena.
- 3 2022ko Euskal Garapen eta Kohesio Fondoaren aurrekontuen kitapenaren onarpena.
- 4 Geuretik Sortuak 2023-2024 ziklorako antzerki emankizunetarako teknika kontratatzeko lizitazioa.
- 5 Lanpostuan egongo diren aldaketak azaldu eta Zuzendari berria aurkeztu.
- 6 Galdera eta iradokizunak

Bilera telematikoki egiten da, bi mila eta hogeita eta hiruko ekainaren hogeita zortzian, arratsaldeko 16:30etan, bigarren deialdian eta parte hartu zuten azpian zerrendatzen diren udalerrietako ordezkariak.

	UDALA
1	Aduna
2	Aizarnazabal
3	Altzo
4	Amoroto
5	Anoeta
6	Arakaldo
7	Asteasu

8	Ataun
9	Basaburua
10	Bera
11	Berastegi
12	Berriatua
13	Errigoiti
14	Etxalar
15	Itsasondo
16	Larrabetzu
17	Mañaria
18	Munitibar
19	Oiartzun
20	Oñati
21	Orexa
22	Otxandio
23	Segura
24	Usurbil
25	Zaldibia
26	Zestoa
*27	Gatika

Ez zuten parte hartu udalerrri hauek: Alegia, Ajangiz, Antzuola, Araitz, Aramaio, Arantza, Arbizu, Areso, Arratzu, Artea, Astigarraga, Atxondo, Bakaiku, Barrundia, Berrobi, Dima, Ea, Elduain, Etxarri Aranaz, Etxauri, Ezkio, Gaztelu, Getaria, Goizueta, Hernani, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Iturmendi, Lakuntza, Leaburu-Txarama, Legutio, Lezo, Lizartza, Markina, Meñaka, Mendaro, Olazti, Ondarroa, Orendain, Uharte-Arakil, Urdiain, Zerain, Ziordia, Ziortza Bolibar, Zizurkil.

Gatikak parte hartzen du Alkate berriarekin, baina izendapen ofizialik oraindik egina ez dagoenez ez da kontuan hartzen bere bozka, Udalbiltza Partzuergoaren estatutuen arabera.

Jabier Asurmendi Udalbiltza Partzuergoaren jarduneko lehendakari jaunak zuzendu du bilkura. Clara Rouget zuzendari berriak ere zuzenean parte hartu du saioa zuzentzen.

Era berean, parte hartu du Joseba Agudok Udalbiltza Partzuergoko idazkari kontu-hartzaile moduan. Udalbiltza Partzuergoko langile diren Arkaitz Almortza, Lide Hernando eta Egoitz Larrañagak ere parte hartu dute.

Quoruma dagoela ziurtatzean, hasiera eman zaio bilerari, honako edukiak landuz:

### **LEHENA.- Aurreko aktaren onarpena**

---

Jabier Asurmendi Jarduneko Lehendakariak egin du puntu honen azalpena.

Zuzenketa edo ekarpenik proposatu ez denez, aurreko Kontseilu Nagusiaren bilkuraren akta onetsi da, aldeko 24 bozka eta 2 abstentzioekin (Usurbil eta Altzo).

### **BIGARRENA.- 2022eko aurrekontuaren likidazioaren onarpena.**

---

Bilerara bidalitako dokumentazioaren artean zeuden kontu-hartzailearen txostenen gainean egin da puntu honen azalpena.

Alde batetik, 2022ko Partzuergoaren kitapenari dagokionez, 666.693,10 euroko sarrerak eta 695.674,92 euroko irteerak izan dira, obligazioen %98,95 ordaindu da eta kobrantzei dagokionez, %80,10 kobratu da. Honela, aurtengo diruzaintzako gerakina guztira 496.293,59 euro dira.

Joseba Agudo idazkari kontu-hartzaileak azaldu duenez, pertsonal mailan, aurre ikusi baino gutxiago gastatu da, lan postuen betetze maila ezberdinak direla eta. Lanpostu hauetarako aurre ikusia zeuden gastuak ez dira bete bere osotasunean. Halere, aurrekontuaren egikaritzea maila oso altua izan da. Kobrantzen batz bestekoa baxua bada, abenduaren 31ean itxia delako da. 2023ko lehen bi hilabeteetan, %95etik gora bete baitzen kapitulua.

Gaia bozketara jarrita, partzuergoaren kitapena bozkatzen da: 25 baiezko eta abstentzio bat jasotzen dira (Etxalar).

Beraz, kitapena onartzen da.

### **HIRUGARRENA.- 2022ko Euskal Garapen eta Kohesio Fondoaren aurrekontuaren likidazioaren onarpena.-**

---

Euskal Garapen eta Kohesio Fondoari dagokionez, azaltzen da Eusko Barter ekimenak hartu duela bertatik diru kopuru bat. Baina ez dela tresna hau 2022ean apenas erabili. Honela, emaitza (-) 4.104,00 eurotako izan da eta geratzen den gerakina 34.961,27 eurotako da.

Ondoren, EHGKF kitapena bozkutzen da. 25 baiezkoko eta abstentzio bat jasotzen dira (Etxalar).

Beraz, kitapena onartzen da.

### **LAUGARRENA.- Geuretik Sortuak 2023-2024 ziklorako antzerki emankizunetarako teknika kontratatzekeko lizitazioa.-**

---

Jabier Asurmendi jaunak, azaltzen du zerbitzua kontratu behar denez, eta 15.000 eurotatik goragoko aurrekontua duenez, lizitazio publikoa atera behar dela. Hitza ematen dio Partzuergoko Idazkariari, prestatu diren pleguak azaldu ditzan.

Joseba Agudo jaunak, prestatu diren pleguen azalpen orokorra ematen du, ondorengo ezaugarriak azpimarratuz:

- Prozedura irekia eta ohiko izapidetzea duena izango da.
- Lizitazioaren aurrekontua 40.000 euro gehi 8.400 euro Bez).
- Kontratuaren balio zenbatetsia: 96.800 euro (80.000 euro gehi 16.800 euro Bez).
- Iraupena bi ziklo artekoa izan daiteke (2023-2024 + 2025-2026).

Plegu administratiboak eta Plegu teknikoak bozkutzen dira eta 26 baiezkoko daude. Aho batez onartzen dira.

Ondoren, Udalbiltzako Estatutuetan azaltzen den aukera baten berri ematen da: 20. artikulua arabera, Kontseilu Nagusiak delega dezake Batzorde Eragilean, lizitazio honen adjudikazioa gauzatzearen lana.

Gaia bozkatu eta 26 baiezkoko daude. Aho batez onartzen da Batzorde Eragilea izan dadila lizitazioaren prozesua lagundu eta adjudikazioaz arduratuko dena izatea.

### **BOSGARRENA.- Lanpostuetan egongo diren aldaketak azaldu eta Zuzendari berria aurkeztu.-**

---

Jabi Asurmendi jarduneko lehendakariak egin du puntu honen azalpena.

Jabi Asurmendik amaitu du Udalbiltza Partzuergoarekin zuen kontratu bidezko lan harremana. Lehendakari berria hautatu bitartean, berak jardungo du jarduneko lehendakari bezala. Baina zuzendari postuan pertsona bat behar zela eta, eta hau konfiantzako postua denez, orain arte IEHko teknikari zen Clara Rouget anderea aukeratu duela zuzendari postua betetzeko. Lehendakari berria hautatzen denean, Clararen egoera aztertuko dela baina printzipioz, lehendakari berria jardunaldi erdiz egongo dela aipatzen du. Honela ideia da Lehendakari berri bat

proposatu ahal izatea hurrengo kontseilu nagusian, eta zuzendari eta lehendakari postuak banatuta egotea, jardunaldi erdiz bakoitza.

Ipar Euskal Herrian arituko den teknikariaren bila dabil Udalbiltza. Clara Rougeten ordezkoa bilatzen ari da.

Azkenik, Jabier Asurmendi jaunak, azaltzen du konfiantzako postua duen Lide Hernando komunikazio teknikariak lanpostua utziko duela 2023ko irailaren 7an. Honela, komunikazio teknikari baten bila ere dabilela Udalbiltza aipatzen da.

Eta guzti hau informazio gisa eman da, partzuergo kideak jakitun izateko ez baita bertan bozkatu behar, konfiantzako postuak lehendakariaren eskumena baitira.

Bertaratutako partzuergo kideek ez dute iruzkinik egiten, ondo hartzen dituztelarik emandako azalpen guztiak.

## **SEIGARRENA.- Galderak eta Iradokizunak**

---

Ez dago inolako galdera eta iradokizunik.

Honen ondoren, eta deialdi honen helburua beteta, Lehendakariak batzarraldia amaitutzat ematen du, arratsaldeko bostak eta zortzi minutu direnean. Eta nik Idazkari bezala ziurtatzen dut.

UDALBILTZA PARTZUERGOKO IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

JOSEBA AGUDO MANZISIDOR



---